

Merkatura



- Kartoizko etxe bat eraik ikasgelan eta honen estrena antola.
- Merkatu plazaren bisita. Merkatuko saltzaileak eta abere merkatuaren ezagutza egin eta, bilduma edo erakusketa asma.

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

Hetsi eta ideki aditzen ulermena eta erabilera

Begiak, beharriak eta eskuak idek eta hets : irakasleak aginduak eman eta, ikasleek egintzak burutu behar dituzte. Ikasleak ere agintari izan daitezke aldizka.

Kartoizko etxean :

- Idek ezazu leihoa, ahoa...
- Leihoak, ateak idek itzazu eta hets itzazu.



Taldea mugimenduan

Haur talde batek, errondan, eskuz-esku loturik, arrain sarea osatzen du. Beste ikasleak arrainak dira. Arrainek sarea zeharkatzen dute (beso azpitik pasatuz) barnetik kanpora eta kanpotik barnera. Sarekoek zenbakiak kantatzen dituzte finkatua duten zenbaki bateraino. Zenbaki hori kantatu bezain laster, sarea hesten dute (besoak jauts). Sare barneko arrainak preso dira eta sare handiagoa harrapatuekin osatuko dute hurrengo kantuan. « 1,2,3... sarea hets edo idek... » izan daiteke kantu doinu batekin emana. Jokoa, arrain guziak harrapatuak direlarik bukatzen da.

-N inesiboa.
nor indikatiboan.
Aditza aginteran.
- Xabi barnean/kanpoan da.
- Idek/hets ezazue sarea.

Domino jokoa etxe irudiekin

etxe handiak, tipiak, gorriak, berdeak...

nor indikatiboan.
Erakusleak.
- Etxe hau tipia da.
- Etxe hori handia da.

Ipuina

Hets/idek egintzen lantzeko balia daiteke Otsoa eta pittikak.
Albums du Père Castor. Flammarion (euskaratua).